EUSKARAK DUEN GARAPEN-MAILA EBALUATZEA EAEKO SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEEN JARDUERAN ETA KUDEAKETAN, BIKAIN-EUSKARAREN KUDEAKETAREN ZIURTAGIRIA LORTZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

1. Xedea

Kontratu honen xedea da Bikain Euskararen Kudeaketaren Ziurtagiria lortzeko EAEko Sektore Publikoan erakundeen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzeko lanak kontratatzea.

2. Aurrekariak eta kontratuaren helburuak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokio, eta horrela jasotzen da bere sailaren egitura-dekretuan, erakunde publiko eta pribatuen jardueretan euskararen erabilera nolakoa den jakiteko eta ebaluatzeko sistema bat ezartzeko azterketa egitea, eta sistema horren ezarpena sustatzea, indarrean diren kalitatea ziurtatzeko sistemetan jasotako irizpide eta parametroetan oinarrituta. Betekizun horri erantzuteko sortu zen Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria.

Bikainen ezaugarri nagusietako bat da prozesua etengabe berrikusi behar dela eta errealitate berrietara egokitu behar dela. Alde horretatik, ebaluazio-prozeduraren eraginkortasuna hobetzeko behar diren egokitzapenak egin ahal izateko, dekretua aldatu da, eta, efizientziaren mesedetan, prozedura malguagoa eraikitzeko beharra ikusi da: helburuak, ideia eta kontzeptu orokor eta komunak arautuko dituen dekretu baten bidez, eta eremu publikoaren eta pribatuaren ezaugarrietara egokitzen diren sistemak eta prozedurak arautuko dituzten ebazpen espezifikoen bidez.

Helburuak:

Euskal sektore publikoaren berezko ezaugarrietan ere jarri nahi izan da arreta, eta Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren zabalkunde berezia egin. Horretarako, prozesuari gaur egun duen zurruntasun eta irmotasuna kendu, eta ebaluazio-prozesu arin eta malguagoa inplementatzea izango da helburua, eta horrek guztiak prozeduran aldaketak eragiten ditu nahita nahiez. Hortaz, eremu publikoaren berezitasunak kontuan hartu eta hobeto egokituko zaion prozedura eta ziurtagiri-sistema berezitua abian jartzeko ahalegina ere egingo du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS hemendik aurrera).

Indarrean den ebaluazio-sistemari malgutasuna falta zaio erakunde eskatzaileen berezitasunak kontuan hartzeko orduan; eta ondorioz, erakunde askok zailtasunak izaten dituzte Bikain ebaluazio-prozesura egokitzeko. Gainera, ebaluazio hauek egiteko, ordura

arte Bikain Ebaluazio Klubak egiten zituenak, egiteko behar diren giza baliabide falta dela eta zerbitzua kanpora ateratzea erabaki da kontratu bidez.

3. Egin beharreko lanaren ezaugarriak

Egin beharreko lanak honakoak izango dira:

1. 1. Erakunde eskatzailearekin aldez aurretik bilera bat egitea, diagnostikoa nola egin behar duten eta erakundearen aurkezpena azaltzeko. Atal hauek izango ditu (HPSk emandako ereduaren arabera):

    a. Erakundearen organigrama, eta bere azalpen zehea.
    b. Erakundearen jarduera azaltzen duen dokumentua.
    c. Erakundeak ematen dituen zerbitzuak, xehe azalduta.
    d. Dokumentu estandarrak.
    e. Erakundearen lan-lekuen aurkezpenerako behar diren argazkiak eta bideoak.
    f. Behar diren bestelako dokumentuak.

    Erakundeak autodiagnostikoa egiteko HPSk emandako aplikazio bat erabiliko da. Izan ere, HPSk erabaki behar baitu ebaluatutako elementu bakoitzaren pisuaren zenbatekoa (elementuen haztapena).

2. Erakundeak bidalitako diagnostikoa eta bestelako materiala aztertu eta zerbait falta bada, eskatu.

3. Dokumentazio horrekin, aurre-ebaluazioa egin erakundearen indarguneak, zer-hobetuak. Hauek elementu/adierazle bakoitzean ondo zehaztuta.

4. 4. Erakundearekin egindako ebaluazio-bileretarako (bisita-egunak) HPSk emandako VII. Plangintzaldirako Adierazle Sistemako elementu bakoitzaren arabera sailkatutako galderak prestatzea.

5. Erakundearen organigrama ezagututa, erakundeari bisita eguneko agenda proposatu, pertsona jakinekin baino erakundeko zein arloko arduradun edo langilerekin egin nahi den. Erakundeak zehaztuko du zein pertsona konkreturekin egingo den berba ebaluazio bisitan.

6. Kontraste-bilera(k) edo ebaluazio-bisita(k) egin.

7. Ebaluazio-bileran/bileretan bildutako informazioarekin azken txostena egin HPSk emango duen ereduari jarraikiz.

8. HPSrengandik ebaluazio prozesuaren gainean edo azken txostenaren gainean egon litezkeen zalantza guztiak argitu.

Ebaluazio motak:

1. Ebaluazio laburra honako ezaugarriak dituzten erakundeek jasoko dute:

    - Euskaraz lan egin eta zerbitzua euskaraz ematen duten erakundeak (hizkuntza-gaitasun eta erabilera altua duten erakundeak).
    - Erakunde txikiak: 2 langiletik 10 langile bitartekoak.
    - Egoitza bakarrekoak.

2. Ebaluazio arrunta honako ezaugarriak dituzten erakundeek jasoko dute:

    - Euskaraz lan egiteko urratsak eman dituztenak eta zerbitzua euskaraz emateko ahaleginak egin dituztenak. Euskararen erabilera apala edo ertaina duten erakundeak
    - Erakunde ertainak: 10 langiletik 300 langiletara dituzten erakundeak.
    - Gehienez, bisitatu beharreko 2 egoitza izango dituzte.

3. Ebaluazio konplexua honako ezaugarriak dituzten erakundeek jasoko dute:

    - Euskaraz lan egiteko urratsak eman dituztenak eta zerbitzua euskaraz emateko ahaleginak egin dituztenak. Euskararen erabilera apala edo ertaina duten erakundeak.
    - Erakunde handiak: 300 langiletik 1000 langilera bitarteko erakundeak.
    - 5 egoitza baino gutxiago bisitatzeko izango dituzte.

Dena dela, eskaera bakoitza zein ebaluazio motari dagokion Bikain Bulego Teknikoak erabakiko du, erakundearen aurre txostena eta gainontzeko dokumentuak aztertuta.

Era berean, aurreko ebaluazio-mota horietara sartzerik ez duten 1.000 langiletik gorako erakundeek Bikain Bulego Teknikoarekin adostu beharko dute erakundearen aurkezpen partziala. Idazkaritza horrekin adostutakoaren arabera, erabaki ahal izango da erakundeak bizpahiru ebaluazio konplexu egin beharko dituela, eta horiek azken txosten bakar batean jasoko direla.

Ebaluazioa egiteko momentuan, ***VII Plangintzaldirako adierazle sistema*** izeneko dokumentuan adierazle bakoitzak zeri egiten dion erreferentzia eta nola ebaluatzen den biltzen duen dokumentua erabiliko da.

Ebaluazio osoan zehar ebaluatzaileak/ek errespetu osoa izan behar die/te ebaluatzen duten erakundeari eta baita erakunde horretako partaideei.

Erakundeak ebaluazio-lanekin eta lortutako emaitzekin proposamena egingo dio HPSri, eta ebaluazioaren azken ebazpena erabakitzea Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariari dagokio, zuzendaritza horretako Bikain Bulego Teknikoaren proposamenez.

4. Emaitzak aurkezteko modua

Ebaluazio bakoitzaren amaieran, enpresa esleipendunak lehen aipatutako datu guztien informazio zehatza emango du euskarri digitalean eta paperean, euskaraz. Datu guztiak formatu erabilgarrian emango dira (Excel, Access, Word...). Grafikoak, taulak eta irudiak erraz egokitu ahal izango dira beste txosten batzuetara.

Datu-euskarrietan HPSren logoa agertuko da aldi oro.

Txosten orotan sexuaren araberako aldagaiaren datuak emango dira.

5. Lanen jarraipena

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eta enpresa esleipendunari dagokie lanaren jarraipen egokia egiteko pertsonala izendatzea.

Jarraipena lanaren hasieran eta Zuzendaritza honek eskatutakoaren arabera zehaztuko diren prozedurari eta egutegiari jarraituz egingo da. Jarraipen lan hau euskaraz egingo da.

6. Lantokia

Kontratuaren arabera bete beharreko lan guztiak enpresa esleipendunaren egoitzan, edo horrek aurreikusitako tokietan egingo dira. Azken horiek ez dira inoiz Eusko Jaurlaritzarenak izango.

7. Harreman funtzionala eta organikoa

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ez du inolako lan-harreman funtzionalik ez organikorik ezta kontratu bidezkorik ere izango landa-lana egiteko esleipendunak erabiliko duen langileekin, ez kontratuak iraun bitartean ezta ondoren ere.

8. Enpresa esleipendunaren betebeharrak

Jabetza intelektuala:

Kontratu honen jardueretatik eratorritako jabetza intelektualaren eskubide guztiak EAEko Administraziorenak dira, indarrean dagoen legedian jasotzen den eran. Eskubide horien lurralde-eremua mundu mailakoa da. Hortaz, enpresa esleipendunak lana gauzatzeko garatuko dituen lan, aplikazio, euskarri eta gainerako materialen gaineko Euskal Administrazioaren jabetza-eskubideak gorde beharko ditu.

Hizkuntza arloko baldintzak:

Eusko Jaurlaritza eta ebaluatuko diren erakunde eta enpresa eleipendunaren arteko harremanek izan honelakoa izan behar dute:

a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz egingo du enpresa esleipendunaren langileak kontratua betearazteko zereginak direla-eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzen denean.

b) Komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, enpresa esleipendunak eta Eusko Jaurlaritzak euskara hutsean egitea erabakitzen ez badute.

c) Ebaluatuko den erakundearekiko ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dira posiblea den guztietan. Euskaraz ez dakien pertsonaren bat ere, baldin badago, elkarrizketatu beharko bada, gaztelaniaz egingo zaio elkarrizketa.

d) Ebaluazio txostena, euskaraz bakarrik entregatuko da.

Berdintasunaren arloko baldintzak:

a) Datu guztiak sexuaren arabera jasoko dira eta horien ustiaketan sexuaren aldagaia gainontzeko aldagaiekin gurutzatuko da. Era berean jasotzen diren txostenetan genero ikuspegia txertatuko da.
b) Komunikazioan, bai ahoz eta idaztiz hizkuntza inklusiboa bermatuko da.

Hori dela eta, enpresak euskaraz zein gaztelaniaz jardun ahal izateko baliabide egokiak izan behar ditu.

Vitoria-Gasteizen,

JOSE RICARDO LOZANO SANTOS - 16254355W

Firmado digitalmente por JOSE RICARDO LOZANO SANTOS - 16254355W
Fecha: 2022.07.12 10:40:44 +02'00'

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza